

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Iñaki Alkorta Lertxundi

*Donostia,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea



Biografia



Usurbilgo Egioletaundi baserrian jaioa; ama bertakoa zuen eta aita Usurbilgo Urteta baserrikoa. Baserritik bizi ziren: esnea, arrautzak, barazkiak, txekorrak... Amak postua zeukan Donostiako San Martin azokan. 9 senidetan 7.a izan zen Iñaki. Umetan eta gaztetan Igeldon egin zuen bizimodua, Usurbil baino askoz gertuago geratzen zitzaielako. Igeldoko baserri batera joan zen eskolara, eta 14 urterekin Gardi sastrerian hasi zen lanean, Donostiako erdigunean. 32 urtera arte ibili zen han, eta ondo ikasi zuen ofizioa. Ondoren, Hernaniko Orbegozo lantegian ibili zen lanean. Egia auzora ezkondu zen, bere emaztea (jaiotzez Antigua auzokoa) bertan bizi baitzen 16 urtetatik. Lau seme-alaba izan zituzten. Iñakik baratzea eta animaliak izan ditu beti Egian ere.

Zintak

DON-190

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2020-03-12
- **Iraupena:** 111 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com